


BALIATU PRO

IRAKASLEENTZAKO BENETAKO ASMAMENA



Baliatu Egitaraua prozesu bat da, ikasle guztiak tokitik aldatuko dituen ibilaldi bat. Gaztetxoei burujabetza eragitea da helburu nagusia, taldetasuna alde batera utzi gabe, pertsonari garrantzia eman eta lan-talde anitz bat izatearen aberastasuna azpimarratzea.

Betidanik eta gaur egun are gehiago, jendartean desberdintzea gero eta baldintzatuago dago, desberdintzen denak argi eta garbi, besteak baino azkarragoa dela nabarmendu behar bait du. Inork ez du nahi uzurtuta bizi, besteen mehatxuen menpe egon eta jendartearen babesa lortzeko, haiek betetzen dituzten arauak bete behar dira, osterantzean egiten den oro gainbegiratu izango da. Hausnarketa hau bultzatzeko gaztetxoei egoera nahaspilatsuak biziaraztean datza prozesua, antzerki pedagogikoaren indar eraldatzailearekin ikasleei sustatzea.

Ikasleen erresistentziak ezagutu behar dira, zerbait egin behar denean gorputzaren memoriak eragozteko sortzen dituen mugimendu eta etsipenak. Antzerkigintza klasera sartzen direnean haien subkontzientea lanean hasten da eta irakasleak "artaldea gobernatu behar du", ardi baltzak desberdindu, haien presentzia balioztatu eta zuria kolore bakarra ez dela argitu.

Mamia:

Gakoa, haien egunerokotasuna hautsiz ondo pasatzeko aukera dagoela erakustea da. Azpizkorik gabe, ikasleei zintzotasunez bizi duten unearen ispilu bat parean jarri eta sortzen diren hausnarketak azalarazi. Emozioei buruz mintzatzea ez da erraza, ez haientzako ezta nagusientzako, Baliatu egitarauaren ildo nagusietako bat emozioen kudeaketa da, sabelean pizten diren tximeletak nabarmentzea, haien eragina ezagutu eta egoera kudeatzen laguntzea.



Baliatu Pro Egitaraua gaztetxo arora bueltatzea da, sasoi hartako emozio nahaspila oroitu, barnean gertatzen zena bizi eta gaur egun ikasgelan aurkitzen dugun giroaz alderatu. Ikasgela begiratzeko modu berri bat eskaintzen du, emozioek duten garrantzia azalarazi, taldetasunak lan-taldeari jartzen dizkion oztopoak gailentzeko bideak jorratu eta maitasunak taldean egiten duen sendatze-lana betetzen duela egiaztatzea.

Baliabideak eta Eskakizunak:

- **Baliatu Pro egitaraua** profesionalentzat sortu da, batipat DBHko irakasleentzako eta bereziki, orientatzaile, tutore, filosofia irakasle eta etika irakasle direnentzako.
- 6 < 16 partaide.
- Partaideek arropa komodoa ekartzea komeni da, ariketak apropos egin ahal izateko.
- Espazioa diafanoa zurezko lurra edota esterilekin hornitua eta 2m² pertsonako. Aproposena oholtza.
- Partaideak jolasteko, elkartzeko eta antzezteko gogoia ekarri behar dute.

Onurak:

- Bizi-poza. Hainbatetan antzerkiak edota pedagogiak eman dituzten beldurrak uxatzen dira. Antzerkiak dituen ezaugarriak ezagutze hutsak, bizitzako onurak goratzen ditu.
- Lanabesak erabiltzen ikasi, nekazariak laia erabiliz lurrari, aire berria xurga dezan, buelta ematen dio. Era berean, antzerkiarekin ikastaldea ere ahuspez jarri eta aireak aintzinako zikinak garbitzen ditu.
- Emozioen kudeaketa. Gaiari errespetuz heldu, emozio guztiei lekua ematen jakin eta gaizki egiteko aukera dagoela nabarmendu.
- Kanpoko begirada. Antzerki pedagogikoa erabiltzen ikastea, leuntasuna, zabalatasuna eta arreta.



Antolaketa:

- Egitaraua eta jarduna, talde bakoitzaren idiosinkrasia kontuan hartuta eratzen da.
- 10 < 15 orduko prozesua da.
- Saio bakoitzaren luzapena, ordutegia eta egutegia antolatzaileekin adosten da.

Egitarauaren bermatzea:

- Iurgi Etxebarriak 20 urte egin ditu oholtzatik oholtzara Kukubiltxo antzerki taldearekin.
- 10 urte ikastetxeetako esperientzia aberastuz.
- Baliatu Pro opari bat da, maitasun osoz antzerki pedagogikoa eta bere aberastasunak mundura zabaltzeko asmoz.

Materiala:

- Apropox arduratzen da behar den material guztia ekartzeaz.

Zuen inguruan, antzerkigintza kurrikulum barrua txertatu behar dela uste baduzue jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.